

2004KO MAIATZAREN 26KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko maiatzaren hogeita seiñan, arratsaldeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Igor Sarriegi Zumarraga, Inazio Es-tensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Bilkurari hasiera eman eta Alkateak adierazten du ahazte ondorioz S.4.1 eko zati baten desafekzioa Eguneko Gai Zerrendan ez zela sartu. Bestalde, Eguneko Gai Zerrenda egin ondoren, Azeria Zutabea taldeak izenpetutako mozioa jaso zen eta bi gai hauek, presazko izaeraz, Osoko Bilkuran tratatzea planteatzen da.

Osoko Bilkurak, aho batez, bi gai hauek tratatzea erabakitzen du.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, Alkateak bertaratutakoen onespenera aurkezten ditu 2004ko otsailaren 16an, otsailaren 26an, apirilaren 6an eta maiatzaren 18an egindako bilkuretako aktak.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du berak, apirilaren 6koa izan ezik, gainontzeko aktak ez dituela jaso.

Honen aurrean, Alkateak, gaia mahai gainean gelditzen dela esaten du.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2003KO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA.-

Ondoren, Alkateak 2004ko otsailaren 26ko ebazpen bidez onartutako 2003 ekitabi-ko aurrekontu likidazioaren berri ematen du. Likidazio honek 3.040.492,21 eurotako diruzaintzako gerakin likidoa ematen du. Txertaketak egiteko kreditu-gerakinak berriz 110.169,66 eurokoak dira.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- KREDITU TXERTAKETA BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETAREN BERRI EMATEA.-

Jarraian 2004ko maiatzaren 25eko dataz Alkatetzaren Ebazpen bidez onartutako 2004ko aurrekontuari egiten zaion Kreditu Txertaketa bidezko 1 Zbk.dun Kreditu Aldaketaren berri ematen da. Kreditu txertaketa honen guztizkoa 110.169,66 euroakoa da.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

V.- LURZORUAREN UDAL ERRESERBARAKO LUR-SAILEN MUGAKETA PROIEKTUA -"AMEBI" ETA "KANPANDEGI" - GUNEAK.-

Lazkaoko Udalak, 2003ko martxoaren 18ko Alkatetzaren Ebazpen bidez, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetan Zoru Ez Urbanizagarri bezala sailkatutako lursailetan, Udal Erreserbarako Lursailen Mugaketa proiektua, "Amebi" eta "Kanpandegi" guneei dagokiena, haserako izaeraz onartzea erabaki zuen.

Erabaki honen banakako jakinarazpena egin zitzaien ukitutako lur-jabeei eta espedientea jendaurrean eduki zen hilabeteko epean, iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Egunero eta El Diario Vasco egunkarietan argitaratuz.

Jendaurreko erakustaldi denboraldian bi alegazio aurkeztu ziren.

Alegazio hauen aurrean, proiektuaren idazleak bere txostenak datzi zituen eta hauek honela diote:

1.- FERNANDO ETA JOSE LUIS ARANA LEKUONA Jn.ek AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA.-

Idatzia, goian adierazitakoek lursailaren titulartasuna hirugarren bati, Antonio Rodriguez Castro Jn.ri, eskualdatu diotela azaltzera mugatzen da, baina azken honek ez du puntu hori aitortu.

Indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera, lursailen titular kontsideratu behar dira Erregistro publikoetan titular bezala azaltzen direnak, kasu honetan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Erroldan Arana Jn.ak agertzen dira. Gainera, eta aurkeztutako idatzitik ondorioztatu daitekeenez, eskualdaketa ez da eskritura publikoan formalizatu. Hori dela eta, aipatu lursailen dagokionean interesatu bezala biak hartzea egoki ikusten da, puntu hauek jabetza kentze espedienteko ondasun eta eskubideen zerrendaren onarpen fasean gehiago zehaztearen kalterik gabe.

2.- JUAN MARTIN IRASTORZA LARREAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOA.-

a) Lehenik jendaurreko erakustaldian ezarritako proiektua onartzearen desegokitasuna aipatzen du, beraz 5/1998 Legean jasotako sailkapenean oinarritzen dela argudiatuz. Xedapen hau konstituzioaren aurkakoa dela dio, 6/1998 Legeak lurzorua sailkapenari dagokionean arautzen duen araubidearekin bat ez etortzeagatik.

Gai honen inguruan, bere ondorioak oinarritzen dituen funtsaketa juridikoari dagokionean iritzi berekoa ez izateaz gain, egia eta agerikoa dena da, 5/1998 Legeari dagokionean gai den Epaitegiak ez duela konstituzio-kontrakotasunaren inguruan senten-

tziarik eman. Ondorioz, eta segurtasun juridikoaren eta indarrean dauden arauen betearazte printzipioak aplikatuz soilik, 5/1998 eta 20/1998 Legeak erabat aplikagarriak dira.

Guzti hau dela eta, jendaurreko erakustaldian ezarritako proiektuak dagokion marku juridikoa erabat errespetatzen du.

Orain arte azaldutakoaz gain, maiatzaren 20ko 10/2003 Lege berriak, Lurzoru eta Balorazioen Estatuko Legea aldatzen duenak, lurzoruen erregimena eta ez urbanizagarri bezala sailkatzeko aukerak handitzen ditu, kontsiderazio hau, transformazioarekin bateragarri ez den erregimenaren eraginpean dauden lurzoruek bakarrik ez izatea baimenduz. Ondorioz, erregimen berriak jendaurreko erakustaldian ezarritako proiektuaren legezkotasuna berresten du.

- b) Bigarrenik, eta hainbat epaien atal ezberdinak transkribatuz, hauek, jabetza kentzeak eragindako azalerei, zoru ez urbanizagarri bezala balio justua emateko beharra azpimarratzen dute.

Agerikoa denez, eta mota honetako proiektuentzat ekainaren 20ko 20/1998 Legeak 14.2 artikuluan jasotako prozedura zehatz-mehatz jarraituz, une honetan gunearen mugaketa fasean aurkitzen gara. Ondorioz, ez da egokia ondorengo une bati dagozkion gaiak aztertzea; jabetza kentze espedientearen barruan, balio justua zehazteko pieza bereizia den bezala.

Guzti honekin bat, Irastorza Jn.ak aurkeztutako alegazioa ezestea proposatzen da.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du orain Eusko Jaurlaritza Lurzoruaren Lege berria onartzera dihoala eta onarpen horrek prozesu hau ea ez ote lukeen ukituko.

Alkateak erantzuten dio berak ez dakiela lege hori noiz onartuko den baina gaur egun daukagun marku juridikoa daukagula eta horri lotzea dagokigula, eta gaur egungo legediak aukera hau ematen duela.

Guzti hau kontutan hartuta, Osoko Bilkurak, aldeko hamaika botu (EAJ, EA, PSE-EE), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP), honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- "Amebi" eta "Kanpandegi" guneei dagokien Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetan Zoru Ez Urbanizagarri bezala sailkatutako lursailetan, Udal Erreserbarako Lursailen Mugaketa proiektuaren haserako onarpenaren aurrean aurkeztutako alegazioak ezezte.

2.- "Amebi" eta "Kanpandegi" guneei dagokien Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetan Zoru Ez Urbanizagarri bezala sailkatutako lursailetan, Udal Erreserbarako Lursailen Mugaketa proiektua behin betikoz onartzea.

VI.- S.4.1EAN LURSAIL ZATI BATEN DESAFEKTAZIOA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA. -

Udal Osoko Bilkurak, 2004ko apirilaren 6an, Arau Subsidiarioetako S.4.1 orubean 91 m² azalerako gunea herri erabileratik desafektatzeko hasierako onarpena erabaki zuen.

Espedientea jendaurrean eduki da hilabete bateko denboraldian, iragarkia 2004ko apirilaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik.

Jendaurre erakustaldian ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, Arau Subsidiarioetako S.4.1 ean kokatutako 91 m² tako azalerako gunea, bere espedientean aurkitzen diren planoetan definitzen dena, herri jabaritik desafektatzea behin betikoz onartzea erabakitzen du.

VII.- S.4.1, S.4.2 ETA S.4.3KO XEHETASUN AZTERKETAREN ALDAKETA.-

Lazkaoko Udalak, 2004ko apirilaren 13ko Alkatetzaren Ebazpen bidez Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 4 H.A.ko S.4.1-S.4.2-S.4.3-en Xehetasun Azterketaren Aldaketa haserako izaeraz onartzea erabaki zuen.

Aldaketa honekin S.4.2 eta S.4.3an eraiki gabeko sotoko azalera S.4.1era lekualdatzen dira.

Hasierako onarpena eman ondoren espedientea jendaurrean eduki da 15 lanegunetako denboraldian, iragarkiak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Berria eta Deia egunkarietan argitaratu direlarik, eta denboraldi horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Guzti hau kontutan izanda, Osoko Bilkurak, aho batez, S.4.1-S.4.2-S.4.3-en Xehetasun Azterketaren Aldaketa behin betiko izaeraz onartzea erabakitzen du.

VIII.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 34. artikuluan eta Udal Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 40. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespenez proposamena irakurri dira.

Serna zinegotziak esaten du aldaketa proposamena bidezkoa iruditzen zaiola eta alde bozkatuko duela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aho batez honako hau

ERABAKI DA

Lehenik - Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
I	Pertsonal gastuak	35.000,00 €
II	Ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastuak	32.550,00 €
VI	Inbertsio errealak	224.000,00 €
VIII	Finantza aktiboak	809.480,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.101.030,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
VIII	Diruzaintzako gerakina	1.101.030,00 €
GUZTIRA		1.101.030,00 €

Bigarren.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

IX.- 2004KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: AURREKONTU OINARRIAK ETA LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA. -

Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua onartu berri du.

Foru Arau horren Amaierako Xedapenak zera dio:

"*Bigarrena:* 2004ko aurrekontua foru arau hau indarrean sartu aurretik onartu duten udal entitateek aurrekontua gauzatzeko beren araua Foru Araura egokitu ahal izango dute, udalbatzarraren erabakia dela medio"

Hau honela Aurrekontu-Exekuziorako Udal Araua Foru Arau honetara egokituta onartzea proposatzen da.

Bestalde sortu berri den Lazkao Lantzen, S.A. Udal Sozietateak, bere Administrazio Kontseiluaren bidez, 2004 ekitaldirako aurrekontua aurkeztu du bere onarpenerako.

Guzti honen aurrean, bozketan jartzen da 2004ko Aurrekontu Exekuziorako Udal Araua abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araura egokitu eta Lazkao Lantzen, S.A. ren 2004-

rako aurrekontuaren onarpena eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehenena.- 2004ko Aurrekontu Exekuziorako Udal-Araua abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauera egokitu eta Lazkao Lantzen, S.A.ren 2004rako aurrekontua haserako izaeraz onartzea. Aurrekontu honen sarrera eta gastuen kapitulukako laburpenak honako hauek dira:

LAZKAO LANTZEN, S.A.REN 2004KO AURREKONTUA

SARRERAK:

VIII KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	809.480,00 €
	<u>SARRERAK GUZTIRA</u>	<u>809.480,00 €</u>

GASTUAK:

II KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GASTU	6.800,00 €
VI KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	802.680,00 €
	<u>GASTUAK GUZTIRA</u>	<u>809.480,00 €</u>

Bigarrenena.- Akordio hauek jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrenena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordio hauek behin betikotzat onartuta joko lirateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

X.- LANPOSTUEN BALORAKETA.-

Estensoro zinegotziak, Hazienda eta Pertsonaleko Batzordearen Presidente gisa, gaiaren azalpena egiten du. Esaten du iaz lanpostuen antolaketa azterketa egin zela eta orain antolaketa horretan oinarritutako baloraketa egin dela. Esaten du baita ere baloraketa honen ardatzak elkar-ardurazetasuna, balio-aniztasuna, bakoitzaren bere ardurak garbi utzita baina elkarlanean egin dezaten, herritarrenganako zerbitzua zuzenduta egotearena, eta baita herritarren nahiak eta beharrak udalera komunikatzearena, izan direla. Baita ere esaten du baloraketa honetarako oinarri moduan Euskal Herri Administrazioetako Funtzionarioen soldatei buruz Eusko Jaurlaritzaren Dekretura egokitzea hartu dela. Baita ere esaten du baloraketa prozesu hau aurrera eramaterakoan TEA-CEGOS aholkularitza enpresaren lankidetzat izan dela eta baloraketaren emaitzak Udalari urtean 32.000,- euro inguruko kostu gehikuntza suposatuko diola. Esaten du baita ere baloraketa proposamena langileen asanbladari aurkeztu zitzaiola eta alegazio ondorioetarako emandako 15 egunetan bi alegazio jaso zirela, alegatzaileei erantzun zaiela eta orain proposamena Osoko Bilkurara aurkeztu dela bere onarpenerako aurrez Hazienda eta Pertsonaleko Batzordean informatua izan delarik. Esaten du baita ere bi gai daudela puntu honi erantsita: bat, brigada-lurperatzaile lanpostuarena, baloraketa egiterakoan ikusi da funtzio hau brigadako operari lanpostuaren barruan dagoela eta lurperatzaile eginkizunak egiten dituenarekin akordio batetara iritsi da eginkizun honek berekin damarren berariazko disponibilitatea

urtean 721 euro ingurukoa dela finkatzerakoan. Beraz, gehitzen du, lurperatzaile funtzioa brigadako operari postu guztiena litzateke eta gaur egun langile bat dago lan horietatik salbuetsita aurkeztutako mediku agiri bat dela medio; eta bi, udaltzain-atezain postuaren inguruan, esan gaur egun ez dela atezain funtziorik eta postuari atxikita zegoen etxebizitzak ere orain ez duela funtzio hori betetzen eta planteatzen dena da postuari atezain funtzio hori kentzea eta etxebizitza ere ikastetxearen erabailerarako ematea.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du baloraketarena ondo iruditzen zaiola baina gizarte zerbitzuetan koherentea izaten jarraitu nahi duela aurretik esandakoarekin eta ez zaiola ondo iruditzen funtzionario plaza batekin lansaioaren %120 hartzen duten lan hitzarmeneko bi lanpostu ordezkatzeari.

Alkateak erantzuten dio ez garela hortaz ari.

Guzti honen ondoren eta gaia bozketan jarritz, Osoko Bilkurak, aldeko 11 botu (EAJ, EA, PSE-EE) eta aurkako botu batez (PP) TEA-CEGOS aholkularitzara enpresaren lankidetzarekin egindako lanpostuen baloraketa, bere espedientean aurkitzen dena, onartzea erabakitzen du.

XI.- GOIEKI, S.A.KO 2003KO KONTUAK.-

Jarraian GOIEKI, S.A.ren 2003ko kontuak aurkezten dira Osoko Bilkurara bere onarpenerako.

Alkateak esaten du kontu hauek GOIEKI, S.A.ko Administrazio Kontseiluan onartuta daudela eta Udaletako onarpenekin hurrengo Batzar Orokorrera eramango direla honek bere onarpena eman dezaion eta batzar horretan bera izango litzakela Lazkaoko Udalaren izenean, Osoko Bilkura honek erabakitakoarekin bat, botua emango lukeena.

Osoko Bilkurak, aztertu ondoren, aho batez, kontu hauek onartzea erabakitzen du.

XII.- "APARTEID POLITIKOA, URTEBETE BERANDUAGO" MOZIOA.-

Moziok honela dio:

"APARTEID POLITIKOA, URTEBETE BERANDUAGO

Ehundaka herri kandidatura legez kanpo utzi ondoren, milaka Euskal Herritarren ahotsa isildu nahi izan zen duela urtebete, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa Garaian egin ziren Udal hauteskundeetan. Orduetik gaur egunera bitarteko gertaeren kokapena egin eta egoera honen aurrean erabaki politiko bat hartzeko helburuarekin, ARERIA ZUTABEA herri plataformak, honako MOZIO hau aurkezten du, Osoko Udal Batzarrean eztabaidatua eta onartua izan dadin.

2003ko maiatzaren 25a, Euskal Herriaren historia garaikidearen egunik tristeenetariko bat izan zen. Urtebete pasa da eta egun hartan herriari egin zitzaion iruzurrak indarrean jarraitzen du gaur egun ere. Milaka dira, egun hartan iritzia eman, eta bere erabakia, beste behin ere, errespetatua ikusi ez zuten herritarrak. Gaur da eguna, urtebete pa-

sa ondoren, eta hainbatek herri honentzat aldaketa handiak eman direla aldarrikatzen duen arren, iruzur hark ehundaka udaletan indarrean jarraitzen duena.

Eskubide zibil eta politikoak desagertarazi eta apartheid gordina ezarri zenetik, urte bat beteko den honetan badira batzuk udaletan demokraziaren bererzartzearen 25. urteurrena lotsarik gabe ospatzen dutenak. Franco-ko orain 40 urte, bakearen 25 urte ospatzen zituen bezala. Francok ospatzen zuen bakea, isiltasun inposatuan oinarritzen zen, kanposantuetako bakea zen, egun ospatzen duten demokrazia, eskubide politiko eta zibilen desagerpenean oinarritzen da, bunkerretako demokrazia da.

2003ko udaberri hartan, espainiar faxismoak herri honen ahotsa debekatuko zuenaren zantzu handiak egonik ere, herriak kalera irten zuen, antolatu egin zen, sinadurak bildu zituen eta guztiaren gainetik, faxismoaren legalitateari baino, herritarren borondateari men egingo ziola aldarrikatu zuen. Zailtasun hauek guztien gainetik, ezkerreko hautu abertzalea zabaldu eta landu nahi izan zuten herritarrek, kanpaina egiteko debekuek, mota guztietako karga polizialak, isunak eta hainbat ukazio gehiago jasan behar izan zituzten.

Maiatzaren 25a heldu zen, eta Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroa Garaiko herritarrek, beraien borondatea adierazi zuten. Inon ez bezala, herritarren iritzia legalitate antidemokratikoen gainetik jartzen asmatu zuen, beste behin ere, faxismoak herrien iritzia desagertarazteko duen helburua porrotera bidaliaz. Desgertarazi nahi izan zituzten milaka bozka agertu ziren Hego Euskal Herriko hautes ontzietan. Bozka horietako bakoitzaren atzean, Euskal Herriak nazio gisa dituen eskubideak errespetatuak izatearen aldeko hautu bat zegoen. Atzerriko edozein legalitatearen gainetik, herriaren eta herritarren hitzaren baliolan sinesten duten herritarren hautua. Euskal Herriak aurrera egingo badu, espainiar eta frantziar estatuen bidean jartzen dizkiguten kate guztien gainetik pasa beharko dugula, aspalditik dakiten herritarren hautua.

Legalitatearen mozorropean frankismoaren erreforma burutu zuten faxista berberrek, gaur egun ere, Madrilgo egindako legea erabiltzen dute Euskal Herria estatu espainiarren baitan preso mantentzeko, herriari borondatea adierazteko bideak ukatzeko, egunkariak ixteko, hizkuntz eskubideak zanpatzeko,

Eta legalitate hori bera izan zen, 2003ko ekainaren 14an, ehundaka udalen osaketa egunean erreferentzia gisa hartu zena. Herritarrek hautes ontzietan emaniko iritzia bizkarra emanaz, Madrilgo faxistek baliogabekotzat jotako milaka herritarren borondatea baztertu zuena. Hautes ontzietatik desagertzerik lortu ez zuten errealitatea, Udaletatik desagertarazi nahi izan zuten; milaka herritar, hautatzeko edo hautatua izateko eskubiderik gabe utziaz eta eskubide politikoak ukatuz, bigarren mailako hiritar izatera kondenatuz.

Gaur da eguna, herritarren borondatea desitxuratu eta demokraziari iruzur eginaz, duela urtebete hautatutako udal horiek, herriaren hitza eta borondatearekin zorretan daudena.

Hori guztia kontutan izanik, honako puntu hauek aurkezten dizkiogu Osoko Udal Batzarrari bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen:

- 1.- Udal honek, tristuraz gogoratu eta ozenki salatzen du, duela urtebete Madrilek gure herriaren eta heritarren eskubide politikoak urratzeko egindako saiakera. Zoritxarrez, ez lehena eta azkenekoa ere izan ez dena.
- 2.- Udal honek, herritar oro eskubide zibil eta politiko guztien subjektu dela aldarrikatzen du. Era berean, Euskal Herritar orori dagokigu gure herriaren etorkizuna erabakitzea, eta hori lortzeko eta benetako demokrazia bat lortzeko alderdi politiko, sindikatu, gizarte eragile eta instituzio guztiei elkarrizketa eta konponketarako konpromisoa eskatzen die. Udal honek, herritarren hitzaren eta borondatearen gainetik dagoen inongo legalitaterik ez du onartzen.
- 3.- Udal honek, ARERIA ZUTABEA herri plataforma, beste edozein alderdi politiko bezala, eragile eta mintzakide politiko gisa onartzen du, eta iazko maiatzaren 25eko udal hauteskundeetan plataforma honek izan zituen emaitzak errespetatu eta onartzeko konpromezua hartzen du. Hori horrela izan dadin Udal honek 5/1985 LOREGaren 182. artikuluan jasotzen den formula aplikatuko du, herritarrek aukeraturiko zinegotziak eskubide osoz kargua bereganatu dezaten.
- 4.- Plataforma honen eskubide gabetzearen baitan sortu den egoeraren aurrean protesta egiteko datorren maiatzaren 25ean egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu nahi die udal honek herritarrei.

2004ko maiatzean"

Olaso zinegotziak (PP) esaten du mozioa zentzugabekeria iruditzen zaiola, hori ez dela horrela eta bera hemen lazkaotarrek aukeratu dutelako dagoela, Partiduen Legea, gustokoa izan ala ez izan indarrean dagoela eta Legea bete egin behar dela eta berak ez duela mozioa onartuko.

Alkateak esaten du mozioaren aurkako botua emango dutela eta Partiduen legeari buruz duten iritzia bost puntutan adieraziko duela, lehen ere Osoko Bilkura honetan eman zuten bezala.

- 1.- Lehen ere Lazkaoko Udal honetan alderdien legeari buruz hartutako erabakiak berretsi egiten ditugu.
- 2.- Euskal gizartearen komunitate anitza da eta aniztasun hori islatzen duten eta giza eskubideen defentsan konprometituta dauden erakunde politiko guztiek ahalmen berbera izan behar dute beren ikuspegiak azaltzeko.
- 3.- Halaber, herritar guztiek beren ordezkariak aukeratzeko eskubidea dute, eta aukeratuak izateko ere bai, delituren bat egotzi eta frogatzen ez zaien bitartean.
- 4.- Bere kezka eta salaketa agertzen du legearen interpretazioaren zentzugabetasunak in-defentsioa sortzen duelako, eta oinarriko eskubideen eta askatasunen atalean arbitrariedade nagusitzen ari delako.
- 5.- Berretsi egiten du herri honek gure gizartearen elkarbizitza politiko baketsu eta demokratikoa lortu ahal izateko ezinbestekoa dela ETA desagertzea. Baina, ezinbestekoa da

baña ere, norbanako zein taldeko giza eskubideen errespetuan eta defentsan oinarritutako jarduera politikoa nagusitzea.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioaren aurka bozkatuko duela eta gehitzen du legezko markoa den bezalakoa dela.

Guzti honen ondoren bozketan jartzen da mozioa eta Osoko Bilkurak guztien aurkako botuekin mozioa ezetztea erabakitzen du.

XIII. - BILERAREN AMAIERA. -

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.